

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, LASARTE-ORIAKO UDALAREN 2019KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu du Lasarte-Oriako Udalaren 2019ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena.

2019ko ekitaldiko **Urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, salbuespenik adierazi gabe.

HKEEk fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakusten duen finantza egoera aztertu du eta ondorioztatu du Udalak egoera ekonomiko osasuntsua duela eta behar hainbateko baliabideak dituela ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko, nahiz inbertsio horiei ezingo zaien luze eutsi 2019ko zifretan.

Esan beharra dago, gainera, 2020an sarrerek nabarmen behera egitea aurreikusten dela, bai diru-bilketatik datozenek, bai itunpeko zergetan partaidetzatik eratorritakoek ere, COVID-19 pandemiaren eraginez.

Halaber, adierazi da Udalaren kontu-hartzaitzak jaulkitako txostenaren arabera, **2019an ez dela bete ez aurrekontuaren egonkortasunaren helburua, ez gastuaren araua ere. Udalak bete du, baina, zor publikoaren helburua.**

Udalak zuzentasunez **bete du** 2019ko ekitaldian ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duen **lege-araudia**, nahiz unean uneko salbuespenak azaleratu diren **Langileen eta Kontratazioaren ataletan**, izan ere Lanpostu-zerrendako 7 lanpostu aldi baterako kontratuak zituzten eta 1989ko ekainean kontratu amaitu zitzaizen langileek bete dituzte eta 9 zerbitzu luzatu dira, mugaegun-epea gaindituta.